

USTEKABEKO FESTA

Testua eta irudiak: PAT HUTCHINS

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 25,5 x 20,3 cm. 32 or. 14 €.

Ustekabeko festa (euskaraz)

ISBN 978-84-7681-882-4. Kalandraka-Pamiela.

Una fiesta sorpresa (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-8464-958-8. Libros para soñar.

Unha festa sorpresa (galegoz)

ISBN 978-84-8464-959-5. Tras os montes.

Una festa sorpresa (katalanez)

ISBN 978-84-8464-960-1. Llibres per a somniar.

—Festa bat prestatuko dut bihar—xuxurlatu zuen Untxi—.

—Ez esan inori; ustekabea izatea nahi dut.

—Untxi siestan geratuko da bihar—xuxurlatu zuen Hontzak—.


—Baina ez esan inori; ustebake bat omen da...

“Ustekabeko festa” kontakizun metagarria eta kateatua da, pertsonaia nagusi batetik abiatuta beste eragile batzuk gehituz doana, hariak eta, une jakin batean, ordena alderantzizkatu eta istorioaren hasierara itzultzen den arte, pertsonaia guztiak bilduz.

Untxi eta Igel, Hontza, Katagorri, Ahate, Sagu eta Azeri, aurre-irakurleentzako eta lehen irakurleentzako album hau —zurrumurruaren edo ‘hondatutako telefonoaren’ jolasa gogora ekartzen duena— bere umoreagatik eta komunitate bateko kideen arteko harremana naturaltasunez kontatzeagatik nabarmentzen da.

Hala, konfidentzia bat ageriko sekretu bihurtzen da, eta gaizki-ulertu harrigarri sorta eragiten du, amaiera zorionsura iritsi arte.

“Gabon, Hontza!”, “Loreren ibilaldia” eta “Non arraio dago Loreren txita?” obretan bezala, Pat Hutchins egileak natura eta animaliak baliatzen ditu berriz ere. Atzealde neutro baten gainean, nabarmendu egiten dira koloreak eta landarediaren eta animalien ezaugarriak xehe-xehe irudikatzea —haien adierazkortasunak bikain azpimarratzen ditu ekintzen ustezko zuhurtasuna eta ipuinaren amaieran talde osoak hartzen duen ustekabea.



- **Gala:** baso bateko biztanleen arteko harremanak.
- **Gomendatutako adina:** aurreirakurleak eta lehen irakurleak.
- **Alderdi azpimarragarriak:** “Gabon, hontza!”, “Loreren ibilaldia” eta “Non arraio dago Loreren txita?” (Kalandraka -Pamiela) liburuen egile berarena; animaliak; natura; koloreak; umorea; kateatze- eta metatze-egitura; zurrumurruaren edo “hondatutako telefonoaren” jolasa.

Pat Hutchins

(Ingalaterra, 1942)

Zazpi anai-arrebetatik seigarrena, Pat Hutchins zelaiez eta naturaz inguratuta hazi zen, gerora bere obran islatuko zuen giroa. Oso gaztetatik artista izan nahi izan zuen, inguruko zahar bikote batek marrazki bakoitzeko txokolate-barra bat oparitzen ziolarik. Herriko arte-eskola batean ikasi zuen hiru urtez, eta gero Leeds-eko Arte Akademiara joan zen ilustrazio espezializazioa egitera. Hasiara batean, bere obra Londres inguruko zirkuito artistikora mugatu zen, baina ezkondukoan New Yorken emandako denboraldi batez argitaldari batzuei bere obra arrakasta handiz erakusteko aukera izan zuen. Liburu hau (*Rosie's Walk* titularekin) izan zen haurrentzat argitaratu zuen lehen albuma, Amerikako Liburuzainen Elkarteak (ALA) Liburu Nabarmendua izendatua 1986an. Geroztik, eleberririk batzuk idatzi eta ilustraturiko liburu gehiago argitaratu zituen. Kate Greenaway Domina prestigiotsua eman zioten 1974an. Gaur egun Londresen bizi da.



www.kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.

Pamiela
etxea .com

soltxate@pamiela.com